

4-5 ELKARRIZKETA Hego Amerika bi gurpil gainean ezagutzen

Unai Altuna eta Maria Mungia bikotea bere bizitzako bidaia egiten ari da, Hego Amerika bizikletan zeharkatu. Hilabeteak dira Txilen abentura hasi zutenetik. Geroztik, besteak beste, Txileko hegoaldeko bide austral basatia, Argentinako lakuak eta Uruguain izan dira eta duela gutxi, Andeak gurutzatu dituzte. Bidean lagunak egin eta kultura ezberdinak ezagutu dituzte. Haien bizipenak Suaren bila blogean jarraitu daitezke.



Ertza konpainiak, ostiralean, Okendon eskainitako "Ikuslearen Showa" kale ikuskizunaren une bat.

Kale ekintzak nagusi uztailean

Zinea, dantza eta argazki rallya jardueraz betetako hilari hasiera emateko

Lasarte-Oriako Udalak udako programazioa aurkeztu zuen. Uztailean zinea, antzerkia, kontzertuak... jabetuko dira gure kaleez. Auzoetan ere jarduerak izango dituzte eta Santa Ana eguneko ekintzak ere hil honetako protagonistak izango dira.

Kale ikuskizunak, antzerkiak, ipuin-kontaketak eta askotariko kultur ekintzak izango dira herrian, uztaile osoan zehar.

Ostegunean, 'Mad Max' film ezagunaren bertsio berriaz gozatu zuten Okendo plazara hurbildu ziren herritarrek.

Ostiralean berriz, 'Lasarte-Oria Dantzan' programaren baitan, Ertza konpainiaren 'El Show del Espectador' dantza ikuskizuna izan zen ikusgai, iluntzeko 20:00etan Okendo Plazan.

Larunbatean, berriz, Oriako auzokideek argazki rallya

egin zuten. Goizeko 11:00etan bildu ziren herritar eta zaletuak, argazkiak ateratzeko gogoz, auzo-elkartean. Dozena bat lagun animatu ziren bi orduko argazki-rallyan parte hartzera.

Beste ekintzak

Baina ez dira hauek kaleak beteko dituzten ekintzak izango.

Udako zineko hurrengo saioa, uztailean 21ean izango da. Honetan 'La Familia Bèrlier' filma izango da.

'Kultura Auzoetara' programaren barruan, Lur Usabiagak ipuinak kontatuko ditu

uztailaren 15ean, 22an eta 29an, Isla plazan, Zabaleta plazan eta Jaizkibel plazan, hurrenez hurren. Saio guztiak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira.

Horretaz gain, hiru tailer ere egingo dira: 16an globoflexia Isla plazan, 23an birziklatutako zorroak Zabaleta plazan eta 30ean frutak Jaizkibel plazan. Haurrak gonbidatu dituzte 11:00etan hasiko diren tailer hauetara.

Bestalde, 'Kale Antzerkia Bultzatuz' ekimenaren baitan, kaleko hiru ikuskizun eskainiko dira Okendo plazan: uztailearen 14an Markeliñe konpainiak 'Crusoe' eskainiko du, 15ean Zanguango taldeak 'Flux' aurkeztuko du eta 29an Deabru Beltzak bere 'Su á Feu' ikuskizuna egingo du.

Kontzertuak ere izango dira herriko kaleetan, 'Kultur

Kale Zikloa'-ri esker. Uztailearen 16an Psicoacoustic taldeak Orián joko du; 23an Igor Letona Jazz Quartetek Isla Plazan eta azkenik, Iker Laurusak Tximistarreta parkean, uztailearen 30ean.

Hilabete honetako ekin-tzen barruan, ezin ahaztu Santa Ana jaien inguruko jarduerak. Uztailearen 12tik 24ra Zurmailu Elkarteak Antonio Mercero gunean prestatutako egur-tailako erakusketaz gozatu ahal da. Uztailearen 24an, XXXII. Santa Ana Artisanu Azoka izango da Okendo plazan eta Mercero plazan. Eta azkenik, Ttakun KE-ren eskutik, Santa Ana egunean, uztailearen 26an, ohiko ekintzak izango dira. Hauen artean, 22:00etan, urteko gertaerak era komikoan erreparatzen dituen Santa Anako parodia egingo da Okendo plazan.

**Hurrengo
TXINTXARRI-ak
uztailaren
18an eta 27an
argitaratuko
ditugu.
Herriko
informazio
guztia
txintxarri.eus
atarian**

www.multiopticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Zorion agurrak



Unax

Zorionak makina!!!
Zure eguna topera
ospatu izana espero
dugu!!




Unax eta Garazi

Zorionak Unax eta Garazi. 10 muxu potolo
aitatxo ta amatxoren partetik!!!



Iñigo

Zorionak reportero
Txintxarri eta Ttakuneko
lankideen partetik!! Animo jaietako
ajearekin!!!



Aimar

Zorionak gure etxeko
erregeari!!! Bi muxu
aita eta amaren partetik.



Enara

Zorionak Marimatraka.
Iritsi da eguna. Ondo
pasa merendolan! I I
muxu pottolo zuretzat
familiarren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Etxea salgai Buenos Aires aldapan. Harremanetarako telf.: 617 085 803
- Apartamentua alokatzen da Hendaian abuztuan, garaje marrarekin. Miren, 669 426 399.
- BMko parkinean garaje bat alokatzen dut. 18 metro karratu ditu eta sarreratik gertu dago.
- Txalet dotorea alokatzen dut Huelvan, El Nuevo Portil herrian. Luxuzko urbanizazioan hondartzatik oso hurbil. 2 gela komun konplertoarekin, sukalde, egomgela-jangela eta terraza handia. 2 igerileku, padel pista eta garajea. Hamabostaldia udan. 943 376 115.

Lan-eskaria

- Udan umeak zaintzeko prest nago. 660 138 038.
- Larunbatetan garbiketa lanetan lan egingo nuke orduka. 634 278 198.
- Pertsona adinduak zaintzeko externa edo

orduka lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziekin. 617 761 423.

Salerosketa

- Jaunartzetako bi jantzi saltzen ditut. Bata marinela jantzi urdina da, bestea marfil zuri kolorekoa. Biak 100 eurotan eta bakoitza 50 euro. 673 381 470.

Bestelakoak

- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Alain Ubegun Perez, uztailearen 5ean.
- Luka Vila Pinedo, ekainaren 30an.
- Asier Galdona Garcia, ekainaren 28an.
- Lucas Loureiro Martin, ekainaren 27an.
- Iria Martinez Rodriguez, ekainaren 24an.
- Izei Alexis Cid Lugo, ekainaren 23an.
- Erika Echeverria Florido, ekainaren 22an.
- Asier De la Fuente Garcia, ekainaren 11an.

- M^a Angeles del Olmo Lopez, uztailearen 2an, 70 urte zituela.
- Josefa Escudero Barberena, uztailearen 1an, 88 urte zituela.
- Chema Benito Diez, ekainaren 28an, 64 urte zituela.
- Alejandro Olivero Martin, ekainaren 27an, 66 urte zituela.
- Filo Gutierrez Soto, ekainaren 25an, 87 urte zituela.
- Cristobal Ponce Suarez, ekainaren 23an, 84 urte zituela.
- Angel Lopez de Lacalle Iriarte, ekainaren 20an, 92 urte zituela.
- Gregorio Merino Sainz, ekainaren 19an, 62 urte zituela.

Heriotzak

- Pilar Castaño Duran, uztailearen 8an, 92 urte zituela.
- Isabel Rodriguez Ingelmo, uztailearen 2an, 87 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Astelehena, 11 Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567	Asteartea, 19 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
Asteartea, 12 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549	Asteazkena, 20 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521
Asteazkena, 13 Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567	Osteguna, 21 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
Osteguna, 14 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521	Ostirala, 22 Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
Ostirala, 15 Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652	Larunbata, 23 Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
Larunbata, 16 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549	Igandea, 24 Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
Igandea, 17 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549	Astelehena, 25 Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
Astelehena, 18 De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151	Asteartea, 26 Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munnteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Maddi Noriega, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

SARE

Hartu trena ekimena aurrera

Santa Barbaran gaixo dauden presoek eskubideen alde



Maiatzean egin zen ekimena herrian urtarrilean abiatutako 'Hartu trena' ekintzaren baitan.

Lasarte-Oriako Sarek Hernaniko taldearekin batera, ekimena antolatu du larunbatean Santa Barbarako tontorrean. Bertan gaixotasun larria espetxean bizi duten presoek osasunerako duten eskubidea aldarrikatuko dute.

TXINTXARRI

O sasungintzan diharduten langileen atxikimendua jasotzen ari da Sare. "Presoen eskubideak babesteko trenak, bere martxan, aurrera darraien seinale da. Aurrez Errenterian edo Ondarroan bezala, gaixo larri dauden presoek herrietatik pasatuko trenak Lasarte-Oria eta Hernanilotuko ditu oraingoan".

Taldetik adierazi duten moduan "berezia du bagoi bakoitzean daraman zama, biltzen ari den babesa. Eta

bereziagoa helmuga: dagozkien eskubideak lortzea".

Larunbatean Santa Barbara tontorrera igo eta bertan herriko osasungintzako langileek sinatu duten manifestua zabalduko du taldeak lau haizetara.

Gaixotasun larria espetxean bizi duten presoek osasunerako duten eskubidea du oinarri manifestuak. Egun lbon Fernandez Iradi herritarra eta Garikoitz Arruarte Hernaniarrak kasu gehiagoren artean daude. Esklerosi anizkoitza du lasarteoriatarrek eta

espondilitis ankilopoietikoa hernaniarrak, gaixotasun kroniko sendaezinak biak.

"Espetxean egun ezinezkoa dute gaixotasunari aurre egitea".

Lasarte-Oria eta Hernaniko Sarek prestatu duten ekimen bateratu honetan txalapartariak, dantzariak izango dira besteak beste. Amaieran hamaiketako egingo da, bakoitzak etxetik eramandakoarekin.

Goizeko 10:30ean Zabale-tako plazatik ateratzea da asmoa eta 12:00etan gailurra hartuko du ekimenak. Herritarrek parte hartzera deitu ditu Sarek "Osasunaren arloko langileak eta herritarrek Osasun eskubidea bermatu dadin".

BIYAK BAT

Cortesera irteera

Biyak Bat elkarteko kideek txangoa antolatu dute uztailearen 21ean Nafarroa aldera, zehazki, Cortes herrira.

Irteera goizeko 8:00etan izango da elkarre aurreko geltokitik. 10:00etan, geldialdi bat egingo da Castejonen eta bertan hamaiketako gozatuko dute. Cortesera iristean gaztelua eta Ines Litagoren museoa pribatua bisitatuko dituzte. Honetan, eskuz margotutako 700 ostruka arrautza daude.

Bazkaria buffeta izango da, kafea barne eta ostean, dantzaldia egingo da.

Izena ematea gaur irekiko da eta honetan parte hartzeko 10:30tik 12:30era bulegora hurbildu behar dira interesatuak.

ELKARBIZI

Indarkeria eta legimitatea aztergai

Elkarbizi taldeak hitzordu berria du, uztailearen 16an, larunbata goizeko 11:00etatik aurrera, Villa Mirentxun. Saio honetan 'Elkarbizitza, indarkeria eta legimitatea' gaia landuko dute

Hizlari lanetan Imanol Lizarralde, Historian doktorea, eta Joxan Rekondo, Elkarbizi taldeko kidea, izango dira. 'Bizikidetzaren demokratikoa nagusi den egoera batean, zein subjektuari dagokio gizartea eta gizartekideak babesteko legimitatea?' galderari erantzunango diote.

Ikastaroaren izaeragatik, parte hartzeko plazak mugatuak dira. Izen ematea helbide elektronikoa honetan egin daiteke: ganboiturri@gmail.com. Epea uztailearen 14ean bukatuko da.

GIZARTEA

Familia behartsuei janaria banatu zaie

Lasarte-Oriako Udalak Gurutzeko Gorriko boluntario-talde batekin elkarlanean egin duen hirugarren janari-banaketa 119 familia, hau da, 291 onuradun izan ditu.

Udalak jakitera eman duenez, uztailearen 4tik 7ra 4.500 kilo janari banatu ziren. Kasu batzuetan, 2 urtez beherako haurrei zuzendutako jakiak eman dira; beste batzuetan, berriz, adin horretatik gorakoei. Hala nola, haurrentzako zerealak, esne-hautsa, oliba-olioa, babarrunak, arroz zuria, atun-kontserbak, berdura-krema... banatu dira. Elikagaiak pertsona behartsuenei laguntzen dien Europar Funtsak kudeatu zituen.

Langile sozialek familia hauen egoera aztertu dute aurretik. Izan ere, laguntza honetaz baliatzeko, kalteberatasun-egoeran egon edo aldeko txosten sozial bat izan behar baita.

Hurrengo banaketa 2016ko urrian egingo da aurreikusten da. Onuradun izan nahi dutenek eskaera egin dezakete Udaletxeko erregistro orokorrean, eskaera-orri orokorra betez.

San Pedro Jaiaren balorazio "oso ona" egin du Udalak

San Pedro Jaiak amaituta, Lasarte-Oriako Udalak eta Jaietako zinegotzi Txus Alonsok oso balorazio ona egin dute jaiaren inguruan.

Alonsok onartu du zorion ugari jaso izana aurtengo jaiak direla eta. "Lasarteoriatarrek oso positiboki baloratu dituzte giroa, kontzertuen kalitatea, jardueren deszentralizazioa eta xexenak itzuli izana".

Giroa eta leku berriak

Zinegotziaren ustez, kaleko giroa izan da azpimarragarriena, eguraldiak ere lagundu baitu. Arratsaldeko jardueretan izan den jende ugaria nabarmendu du.

Era berean, "aurten jarduerak deszentralizatu izanak mota askotakoari jaiak gozatzeko aukera eman dio jende gehiagori. Jaizkibel

plazako kontzertuek oso ondo funtzionatu dute, izan ere, espazio hori Andatza plazakoa baino erosoagoa baita," adierazi du.

Jarduera arrakastatsua

Egindako jardueri dagokienez, Jaietako batzordeburuak azaldu duenez, Doctor Deseo eta Ken Zazpiren kontzertuak arrakastatsua izan dira oso, bai jende kopuruagatik bai kalitateagatik.

Arrakasta handiko beste emanaldi batzuk izan dira Demode Quartet, Tio Tenoren Semeak, Trapu Zaharra, mariatxiak eta Artistak del Gremio. "Jende askok gozatu ditu kaleko ikuskizunak".

Danborrada Tradizionalak "nola ez, oso ondo funtzionatu du, bere martxa berriarekin. Haurren Danborradak ere, eguraldia lagun ez izan arren".



Ekintza ugari "jendetsua" izan direla azpimarratu du Lasarte-Oriako Udalak.

Landaberri Ikastolari egin zaion aitortza ere jende ugari bildu zuen. "Kultur etxeko afora bete egin zen antzerki eta musika emanaldi eder batekin, eta alkatearen eta ikastetxeko arduradunek hitzekin".

Haurrentzako xexenen itzulerak eta sokamuturrak

"oso harrera ona izan du, egunero bete baita" jakinarazi du.

Ekintza berri batek ere, zaldi lasterketak eta gizonen eta zaldien arteko demak "lasarteoriatar asko bildu zituen" Atso Bakarreko parkean.

Alonsoren aburuz, "pirotekniako enpresa aldatu izanak ere oso ondo funtzionatu du. Valaceak eskainitako su artifizialak eta suzko zezenak oso harrera ona izan dute herrian".

"Arazorik ez"

Alonsok jaietan normaltasuna eta errespetua nagusi izan direla azpimarratu du.

Honetaz gain, "guk daki-gula behintzat, arazo handirik ez da izan, salbu eta Zumaburun ostegun arratsaldean izan zen borroka".

Zinegotziak, bukatu aurretik, eskerrak eman nahi izan dizkie herriko elkarteek, egindako lanagatik. "Haien jarduerak arrakasta handia izan dute berriz ere, eta lasarteoriatar asko bildu dituzte. Jarduera horiek gabe, San Pedro jaiak ez lirakeke izango gaur egun direna".

“Oroitzapen politenak ez dira paisaia ederrenen inguruan sortu”

Hego Amerika bizikletaz zeharkatzen ari dira Unai Altuna eta Maria Mungia

Txilen hasi eta hilabeteak daramatzate Unai eta Maria Hego Amerika bizikleta gainean zeharkatzen. Mota honetako lehenengo bidaia da bikotearentzat eta hamaika abentura bizitzeaz gain, lagun eta txoko eder pila ezagutzen ari dira bidean. Bidaia noiz bukatuko duten ez dakite, baliabideak dituzten bitartean jarraitzeko asmoa dute. www.suarenbila.wordpress.com blogean ari dira euren abentura ederra kontatzen.

Unai Altuna eta Maria Mungia irailean abiatu ziren euren bizitzako bidaia egitera. Lasarte-Oriako etxea utzi eta bizikletetan beharrezkoa kargatuta soilik joan ziren. Hego Amerika bizikletaz ezagutzera irten eta hamaika abentura, kultura eta lagunekin egin dute topo hila-bete hauetan guztietan zehar. Ahaztezina izaten ari da esperientzia eta horren berri ematen ari dira, Interneteko konexioa dutenean behintzat, Suaren Bila izeneko blogean. Oraindik ez diote amaiera data jarri bidaiari. Hurrengo helmugak Bolivia, Peru, Ekua-dor eta Kolonbia izango dira. Eurekin harremanetan jarri eta orain arteko esperientzia kontatu digute San Pedro de Atacamatik. Andeak gurutzatu berri dituzte Jamako igarobidetik.

2015eko irailean hasi zen abentura. Zergatik Hego Amerika eta zergatik bizikletaz?

Hasieran, zalantzan ibili ginen Asia eta Hego Amerikan artean. Ekialderantz joateko ez genuen hegazkinik hartu behar, etxetik aterako ginen bizikletan; Hego Amerikan, berriz, hizkuntzaren erraztasuna genuen, bidaia asko aberastuko zuena. Gainera, bizikleta edo materialarekin arazorik izanez gero, ordeko piezak lortzea errazagoa izango zela iruditu zitzaigun –hastapeneko beldurrak–. Asia gerorako utzi dugu, kar-kar.

Bestalde, hasieratik genuen argi bizikletaz abiatuko ginela, asko gustatzen baitzaizkigu eskaintzen dituen aukerak: abiadura egokia, horrek ematen duen gertutasuna –bai jendearekiko bai naturarekiko–, noranahi joateko independentzia, helmugak ez diren lekuak ezagutzeko parada... Eta, gainera, bidaiatzeko era merkea da.

Aurretik horrelako bidai

luzerik eginda zenuten?

Ez. Aurretik, laneko oporrak baliatzen genituen bidaiatzeko; ondorioz, asko jota, hila-beteko bidaiak egin izan ditugu bizikletaz, Euskal Herrian zein atzerrian. Horrelakorik ez orain arte.

Suaren Bila da zuen bloga eta bertan azaltzen duzue, zuen burua hobeto ezagutu eta bizitzaz hausnartzeko egiten ari zarete bidaia. Etxean hain zaila al da lan hori egitea?

Etxean ere egin daiteke lanke-ta hau, noski, baina zailagoa da.

Zeure herrian zaudenean, lantegiko orduetaz gain, hamaika saltsa eta konpromezu izaten dira eta ez da erraza izaten norberarentzako denbora hartzea; ozeanoa tartean jarri behar izan dugu, kar kar. Gainera, Hego Amerikara etortzeak balio gehitua du. Izan ere, hamaika errealitate ezberdin aurki daitezke hemen, bizitzeko era anitzak. Eta haietatik ikasteko ere atera gara etxetik, bertan, betiko zirkuluetatik irtetea konplexuagoa baita. Euskal Herrian, bilatu egin beharko genituzke esperientzia horiek, bidaiatzen, aldiz, parean agertzen zaizkigu.

Txilen hasi zenuten bidaia. Argentina eta Uruguain egon eta gero berriro bueltan zaudete. Zein izan da orain arteko ibilbidea? Bisitatu dituzuenetatik zein leku izan dira berezienak?

Bidaia Santiago de Chilen hasi genuen irailean; bertatik, hegoalderantz, Ushuaiara iritsi ginen otsaila hasieran. Handik, hegazkinaz Buenos Airesera jauzi egin genuen, eta Unairen arreba Maialen bertan zegoela probestuz, hilabete eman genuen berarekin, hiriburua ezagutzeaz aparte, Iguazuko ur-jauziak eta Uruguai bisitatu. Maialen Montevideon agurtu eta, berriz bizikletak harturik, Uruguai ezagutu genuen hila-



Maimaran Eva, Pipo, Salva eta Xaxa-ren etxean bazkaltzen. Bost egun eder igaro ditugu haienean. Humauaca arroileko esperientzia ederrena.

betez. Ondoren, Argentinako iparraldean ibili gara.

Joandako astean Andeak gurutzatu ditugu Jamako igarobidetik eta Txileko San Pedro de Atacaman gaude orain deskantsatzen.

Leku bereziak ia egunero azaldu zaizkigu. Txile hegoaldeko bide austral basatian egindako hilabetea, adibidez, ederra izan zen, baita Argentinako lakuen eremua ere, eguraldi bikainarekin igaro genuena. Uruguaiako kostaldea, Salta-Jujuy inguruak edota oraintxe egindako Andeen zeharkaldia ere politak izan dira...

Zaila da leku bakarra aukeratzea, asko eta asko izan baitira hunkitu gaituzten paisaiak.

Bertako jendearekin harremanak egin eta zaudeten lekuetako kultura, errealitatearen zatitxo bat jaso nahi duzue... ez da soilik bidaiatzea eta paisaia eder-rak ikustea... ezta?

Leku ederretan, gehienetan, turismo egiturak sortzen dira inguruan eta bertako jendea bidaiariak ikusteaz ohitu egiten dira eta inguratzen zaizkizun gehienak negozioa egiteko asmotan etortzen dira. Aldiz, turismorik ez dagoen herrixketan gertatzen, hartu-eman atseginak sortzen dira: jendea jakin-minnez gerturatzen zaigu eta, batzuetan, etxera gonbida-

tzen gaituzte edota mate bat hartzera edo jatera.

Paradoxikoa bada ere, oroitzapen politenak ez dira paisaia ederrenen inguruan sorturikoak, herrixka galdu hauetako istorio txiki eta goxo hauek baizik.

Zuen antzera bidaiatzen ari direnak ere topatu dituzue?

Bai, asko eta asko. Bide austrealean edo Patagonia hegoaldean, esaterako, ziklistaren bat topatzen genuen ia egunero.

Handik aurrera, ordea, ibilbide nagusitik kanpora, ez dugu ia bat ere topatu hilabeteetan, San Pedro de Atacama heldu arte, hiru herrialdeen arteko elkargunea eta, ondorioz, txirindularientzako puntu logistikoa.

Atzo arratsaldean, esaterako, sei lagun elkartu ginen informazioa trukatzeko aitazkian: Suitzako bikote bat eta Irlandar-Eskoziar bikote bat. Bidean egin ditugun lagun batzuk ezagutzen zituzten haiek ere; azken finean,

komunitate txiki bat osatzen dugu bizikleta bidaiariok.

Bloga diario moduko bat da. Zergatik idatzi? Etxekoak hurbilago sentitzen al dituzue horrela?

Batetik, ariketa polita da bizi ditugun abenturak idatziz azaltzen saiatzea. Biok dugu gustuko idaztea eta atseginez egiten dugu, horretarako denbora hartzea zaila zaigun arren –daramagun atzerape-na ikustea besterik ez dago–. Bestetik, gure esperientzia kontaturik gelditzen da horrela, bai guretzako, etorkizunera begira, bai ingurukoentzako.

Zer eraman behar da motxilan halako bidai bat egiteko?

Bizikletan kargatzen dugun gauza bakoitzak bere esfortzua eskatzen digunez, motxilan eraman beharrekia ondo aukeratu behar da.

Bakoitzak hogeita bost kilotan klima eta egoera ezberdinetarako behar den

“Hego Amerikan hamaika errealitate ezberdin aurki daitezke, bizitzeko era anitzak. Euskal Herrian bilatu egin beharko genituzke esperientzia horiek, hemen parean agertzen zaizkigu”

“Abenturari denbora-mugarik ez jartzean altxor ederra topatu dugulakoan gaude. Jakina, ez da erraza halakorik planteatzea”

guztia eraman beharra dauka –arropa, kanpin denda, lo zaku eta esterila, sukaldeko tresnak, erremintak...–, baita askotan hiru-lau egunetarako janaria eta ura ere. Honez gain, “kapritxo” batzuk ere garraiatzen ditugu: pultserak egiteko hariak eta harriak, ordenagailu txiki bat, musika entzuteko bozgorailu bat...

Irakasgai polita izan da bizitzeko behar dugun guztia bizikletan sartu behar izana: gainean daramaguna nahi adina denboran bizitzeko nahikoa da. Lasarte-Oriako etxea hustu genuenean bete genituen hiru furgoneten aldean, bada diferentzia.

Baina, batez ere, pisatzen ez duten gauzak sartu behar dira motxilan horrelako bidaia bati ekiteko: datorrenari irekita egotea, gauza berriak ikasi eta ezagutzeko gogoia... Eta beste batzuk

etxean uztea komeni da: aurreiritziak, beldurrak, ziurgabetasunak... Azken hauek bazterrean uztea zaila izan daitekeen arren, lasai hasi, bidaian aurrera egin ahala, ezinbestean eroriko baitira.

Noiz arte luzatuko duzue bidaia?

Ez dakigu, eta faktore hau klabe garrantzitsu bat dela konturatu gara bidaia honetan.

Epe bat jarritz gero, nahiz eta luzerako izan, atzera-kontu batean sartzen zarela iruditzen zaigu eta horrek estresa sor dezakeela, ezagutu nahi dituzun leku guztietara heldu nahia eta, ondorioz, plan aldaketei, geldialdiei edota bide galdu eta berriei iskin egiteko arriskua.

Abenturari denbora-mugarik ez jartzean altxor ederra



Jamako igarobidean, lau mila metrotik gora. Hotza eta haizea, baina ederra.

topatu dugulakoan gaude. Baina, jakina, ez da erraza halakorik planteatzea.

Zein herrialde gehiago bisitatuko dituzue?

Oraingoz, iparralderantz jarraituko dugu eta, datozen hilabeteetan, Bolivia, Peru, Ekuador eta Kolonia ezagutzeko asmoa badugu, gutxienez.

Baina auskalo, esandako moduan, erabat irekita gaude

eta ikusteko dago non ibiliko garen datozen hilabeteetan; abenturaren xarmaren parte bat da. Gure diru aurrezkiek markatzen dute muga, baina geldialdiren bat egin eta dirua biltzen saiatuko gara agian... Argentinaren batek esan zigun moduan: “Ojala os quedéis sin dinero y os tengáis que buscar la vida para continuar, ¡ahí empezará vuestro verdadero viaje!”.

Ikusiko dugu nora eramanen gaituen bideak.

Hilabete luze hauetan asko izango dira bizitako anekdotak. Baten bat kontatuko diguzue?

Asko izan dira bai, nola ez. Humahuacako arroila bisitatzeko asmotan bidean gora abiatu ginen aurreko astean eta, Maimara herrixkan, bide ertzean alabarekin zetorren gizonak ikusi eta segituan etxera gonbidatu gintuen bazkalazera. Bazkalostean, nahi genuen denboran deskantsatzeko gela bat eskaini ziguten eta, azkenean, bost egun eman genituen beraiekin: haurrekin jolasean, kanaberazko teilatua egiten laguntzen, baratza prestatzen eta matea hartu bitartean, Argentinako zein munduko egoera politikoa analizatuz. Ez ginen Humahuacaraino iritsi baina ahaztezina izan zen egonaldia.

Handik Atacamara iristeko, zazpi egun egin ditugu Andeak zeharkatzeko. Jama igarobidetik pasa gara, 4.800 metrotik gorako altuerara iritsiz; 450 kilometrotan herrixka bakarria eta mugako instalazioak soilik. Hori bai, negua da eta haizea eta hotza nahi adina izan ditugu, espero gabeko arazoak sortzeraino: ur botilak izoztu egiten ziren kanpin-dendan sartu arren eta eguerdian, oraindik, izozturik jarraitzen zuten, suak egiteari utzi zion –ez dakigu altuera, hotza edo zer arraiogatik–, eta argazki kameraren bateria ere deskargatu egin zen hotzagatik. Bestalde, azken bi egunetan, hiru auto gelditu zitzaizkigun eta justu behar genuena eskaini ziguten guk ezer esan aurretik: laranjak, Txileko mugan janari fresko oro pasatzea debekatu ostean; ogia eta oilasko gisatua –turista ibilaldi bateko bazkariaren sobe-rakinak–, suak ibiltzeari utzi eta jateko askorik ez genuenean eta freskagarri botila bat, ura izoztuta zegoenean...

Hauek azken bi asteetako anekdota pareta.

Bederatzi hilabeteetan asko izan dira bizitakoak eta gure blog-ean gehiago aurki ditzazkezu. Gustu baduzue: www.suarenbila.wordpress.com.



Bide australa. Natura basatia.

zerbitzu mistoak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Orduetegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektriko
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

ARGENTINA

IPARRETIK HEGORA. AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30

BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik

Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

ATLETISMOA.

Atleta juniorrak ederki aire libreko Espainiakoan

Maria Eugi herritarrak eta Realeko Itoitz Rodriguezek brontzezko dominak irabazi dituzte

Atleta juniorrek zeresana eman dute Castellonen jokatuako aire libreko Espainiako txapelketan. LOKErekin entrenatzen duen Realeko Itoitz Rodriguezek brontzea irabazi zuen 400 metroetan. Atletico San Sebastian taldean ari den Maria Eugi herritarrak, zilarra erreleboetan eta brontzea 200 metroetan.

TXINTXARRI

Ez ziren Castellondik esku hutsik bueltatu Espainiako aire libreko junior txapelketan parte hartu zuten atletak. LOKErekin entrenatu eta Realekin konpetitzen duen Itoitz Rodriguezek brontzea irabazi zuen 200 metroetan. Oscar Goikoetxeak zehaztu zuenez, helburuetako bat 48 segundotatik jaistea zen, baina xede hori ezin izan zuen lortu azkenean Rodriguezek: 48.42 segundotan geratu zuen kronometroa atleta gazteak. "AEBetan denboraldi luzeari egin dio aurre aurten, baina hala ere brontzea lortu du; ea Gijonen (Asturias) jokatu den Espainiako absoluturako gasolinarik geratzen zaion".

LOKE taldeak beste hiru ordezkari eraman zituen Castellonera. Eneritz Bustok 100 metro hesietako proban hartu zuen parte, eta laugarren postua eskuratu. Dominarik lortzerik izan ez bazuen ere, "oso ongi" konpetitu zuen atleta gazteak, Goikoetxearen aburuz: "Marka pertsonala birritan

hobetu zuen eta aintzat hartu behar da proba honetako lehenengo bi sailkatuek junior mailako munduko txapelketan parte hartzeko gutxienekoak egin dituztela; maila handiko proba zen".

Ane Galardik jauzi hirukoitzean eta 100 metroetan konpetitu zuen. "Ederki aritu zen, bi probetan eginda zituen markak hobetzea lortuz".

Maidar Rekondo hiru diziplinatan lehiatu zen: disko, pisu eta jabalina jaurtiketetan. "Bi hilabete eman ditu entrenatu gabe, ikasketak tarteko, eta hala ere bi laugarren postu lortu ditu, eta seigarren bat; hori gutxi balitz, jabalina jaurtiketako proban hiru metroetan ondu du aurreko marka". Goikoetxeak nabarmentzen du "lastima" dela dominarik lortu ez izana: "Entrenamendu faltak eragina eduki du horretan".

Denboraldia amaitu aurretik, Gijonen zita garrantzitsua edukiko du LOKEk. Bi atleta ari dira bertan: Itoitz Rodriguek 400 metroetan eta Eneritz Bustok 100 hesietan. Uztailaren 23 eta 24an jokatu da.



LOKE taldearen espedizioak txapelketa bikaina burutu du Castellon aldean.

Maria Eugik bi domina

Atletico San Sebastian taldean aritzen da Maria Eugi herritarra. Txapelketa bikaina burutu du hark ere, eta herrira brontzezko domina pare bat ekarri ditu bueltan. Horietako bat 200 metroetan kolkoratu zuen. 25.01 segundoko markarekin igo zen podiumaren hirugarren mailara. 4x100 erreleboetan ere hirugarren izan zen herritarra, beste hiru taldekideekin batera: Nora Orduña, Irati Mitxelena eta Maria Mujika. 47.18 segundoko marka puska egin zuten. Sasoi bikaina eginen ari da Eugi.



Maria Eugik (eskubian) brontzea irabazi zuen 200 metroetan.

IGERIKETA.

Uzta oparoa Buruntzaldea IKTkoentzat

Txapelketaz txapelketa ibili dira azken asteotan Buruntzaldea IKTko igerilariak. Ederki aritu dira denak.

Infantilak Udarako Euskal Herriko txapelketan lehiatu ziren, Gasteizen. Irati Arzalluz eta Nahia Jie Villamedianak ordezkatu zuten taldea, ederki gainera: urrezko, zilarrezko eta brontzezko domina bana, taldeko hiru errekor berri, zazpi marka pertsonal eta Espainiako txapelketarako sailkapen berri bat erdietsi zituzten.

Arzalluzek 100 libre proban lortu zuen gutxienekoa hilabete amaieran Malagan jokatu den Espainiakorako, 1:03.07ko denbora eginez. Villamedianak, berriz, jokatutako lau probetatik hirutan lortu zuen podiumera igotzea. 200 bizkarrean irabazle izan zen, bigarren 200 estiloetan eta hirugarren 100 bizkarrean.



Buruntzaldea IKTko kideek txapelketa bikainak burutu dituzte azkenaldian.

Junior eta absolutuak

Kategoria absolutuko Euskal Herriko txapelketa ere jokatu zuten Buruntzaldea IKTko igerilariak, hasi seniorretatik eta alebinetaraino. Urre bat, zilar bat, bi brontze, taldeko hamar errekor berri eta zazpi marka pertsonal lortuz.

Iñigo Ibarburuk erdietsi zituen emaitza onenak: 100

tximeletan txapeldun izan zen, azpitxapeldun 50 tximeletan eta hirugarren 800 libreko proba gogorrean.

Nahia Zudaire nagusi izan zen igeriketa egokituko Euskal Herrikoan. 50 bizkar eta 100 zein 200 librean irabazle izan zen, eta txapeldunorde 50 librean, sailkapen orokorreko lehenengoa izanez.

LABURRAK.

Gaur hasiko da Santa Ana pala txapelketaren bigarren fasea, Loidi Barren pilotalekuan

Fase erabakigarrian sartu da Santa Ana pala txapelketa. Lehenengo fasea amaituta, ligaxka jokatu dute orain lau bikotek. Postuen arabera erabakiko dira finalerdietako neurketak. Ligaxkan aurrea geratzen denak hirugarrenarekin neurtuko ditu indarrak; bigarrenak, berriz, laugarrenarekin. Esan bezala, gaur arratsaldean jokatu dira lehenengo bi partidak Loidi Barrenen, 19:30etik aurrera: Pagola-Jesus/Xenki-Iñigo eta Mikel Begiristain-Jon Begiristain/Xabi-Beñat. Finalerdiak 20an jokatu dira; finala, 26an.



Mendeurrenaren ospakizuna, lasterketekin

Hipodromoa 1916ko uztailaren 3an inauguratu zen. Mende bat beranduagoko udako denboraldia ere egun horretan hasi zen, igandearekin. Hainbat sari eta lasterketaz gozatu zuten turfzaleek. Denera, bost proba jokatu ziren. Herritarrak protagonista izan ziren kirol ekitaldi horietan.

Lasarte-Orian bizi den Ana Imaz prestatzailearen zaldiak izan ziren protagonista egunean zehar. 'Pinkberry' izenekoak 'Gran Premio Inauguración 1916' delakoa irabazi zuen. 'Gran Torinok' berriz, Sanlúcar de Barramedako (Cadiz) Lasterketa Sozietateak antolatutako saria.

Agenda

Larunbata 16, Oria auzoan



Karmengo Amaren ohorez

Oriako Auzoko bizilagunek haien zaindarien ohorezko eguna ospatuko dute larunbatean, Karmengo Amaren eguna. Horretarako, adin guztiei zuendutako egitaraua antolatu dute. Honetaz gain, uztailearen 9an egindako Argazki Rallyko irudiak ikusgai izango dira auzoko hainbat txokotan.

10:00etan, Trikitixa 'Solano' taldearen eskutik eta buruhandiak
11:00etan, Haur tailerrak Karmengo kaperaren ondoan.
12:00etan, Meza nagusia Pilar Catalina sopranoak eta Amaia Dorronsoro organistak girotua.
13:00etan, luntxa.
14:30ean, bazkaria El Jardin jatetxean.
17:00etan, ur-pistola eta globo gerra Brunet-Eneako

lorategian eta gaztelu puzgarriak.
17:30ean, haurrentzako askaria.
18:30ean, Oriako Sorgin Dantza Karmengo kaperatik Brunet-Enearaino.
20:00etan, Gotzon DJ-rekin musika.
22:00etan, dantza Ibai Berriak taldearen eskutik Brunet-Enea.
01:00etan, DJ musika

Lasarte-Oria

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Osteguna, 20:00etan

Markeliñe taldearen 'Crusoe' antzezlanaz gozatu ahalko da. Oraingoan bere uhartean bakarrik dagoen naufragorekin jolasteko aukera izango da, bizitzari buruzko metafora bat egiteko. 'Kale Antzerkia bultzatuz' ekimeneko ekintza.

OKENDO PLAZA

Ostirala, 20:00etan

'Flux' antzezlanaren eskainiko du Zangango taldeak. Honetan antzezele eta herritar

rrak izango dira protagonista. 'Kale Antzerkia bultzatuz' ekimeneko ekintza.

Kultura auzoetara

ISLA PLAZA

Ostirala, 18:00etan

Lur Usabiagarekin ipuin kontalari saioa.



ISLA PLAZA

Larunbata, 11:00etan

Globoflexia tailerra egiteko aukera izango dute gaztetxoek.

ZABALETA AUZOA

Ostirala 22, 18:00etan

Lur Usabiagarekin ipuin kontalari saioa eskainiko du.

ZABALETA AUZOA

Larunbata 23, 11:00etan

Birziklatutako zorroak egiteko tailerra. bi tetrabrik eraman beharko dira.

Musika

ORIA

Larunbata, 20:00etan

Kultur Kale zikloaren baitan herriko Psicoacoustic taldearen kontzertua.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Uztailaren 12tik 24era arte, 19:00etatik 21:00etara

Zurmailu elkarteko kideen egur tailen erakusketa ikusgai izango da.

Getaria

Musika

SAN SALBATORE ELIZA

Ostirala, 22:30ean

Getariako Udalak gonbidatuta, SuBerri akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Errausketari buruz zenbait zehaztapen

Osasuna eta Errauskailua Ikerketa Taldea (OEIT) 2004an hasi zen hondakinaren errausketari buruzko azterketa zientifiko zorroztzen aztertzen, ikuspegi profesional hutsetik, ideologia politikotatik at. [...]Gaurkoan, zuegana jotzen dugu oso kezkatua gaudelako errausketa eta osasunaren inguruan entzun eta ikusi ditugun zenbait kontu eta jarrekin.

Orain dela egun batzuk, Gipuzkoako Batzar Nagusietan agerraldia egin zuten Juan Jose Aurrekoetxeak, EHUko prebentzio-medikuntzako irakaslea, eta Jesús MariáIbarluzeak, BioDonostia-ko Ingurumeneko Epidemiologia eta Haur-garapeneko sailaren arduraduna eta Osasun Publikoaren doktorea. Bertan, errausketa eta osasunaren arteko harremanaz aritu ziren eta errausketaren inguruan dioxinaren kontrolpean egoten direla defendatu zuten. Bi ikerlariaren agerraldi hauek prentsan luze eta zabal jorratuak izan ziren, besteak beste, Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan.

Aldiz, guk, OEIT, Gipuzkoako Batzar Nagusietan parte hartu genuenean, pasa den maiatzaren 23an, salbuespenak salbuespen, inork ez zuen gure agerraldiaren berririk eman. Honek egun dagoen kazetaritza motari buruz gogoeta egitera eraman gaitu. Argi dago gaur egun informazioa ematea ez dela helburua, baizik eta herritarrek adoktrinatzeko. Izan ere, arestian aipatutako komunikabideetan gure agerraldiari eskainitako tartea hutsaren hurrengoa izan zen. Are gehiago, bi komunikabide horietan agertutako zenbait publikazioetan gure taldeari iraindu egin zaio ikerketa zientifikoaren berri eman izanagatik. Eta hala eta guztiz ere, ez digute erreplikarako aukerarik ere eman. Gure taldeari ematen dioten trataera informatiboaren ondorioz, informatzeko garaian iturri desberdinetatik iritzi desberdinak jasotzeko eskubidea urratzen da, erreplikarako eskubidea urratzen da, herritarrei informazioa ezkatzen zaie, emandako informa-

zioak ez dira kontrastatzen... Jokabide hau ez dela bidezkoa iruditzen zaigu.

Aurrekoetxea eta Ibarluzeak esandakoari helduz, medikuak garen heinean gure betebeharrak eta ardura da zenbait puntualizazio, ekarpen eta zuzenketa Gipuzkoako jendarteari, zuei, helaraztea:

Lehendabizi, dioxinen inguruan egindako ikerketak aipatzen zituzten, errausketaren inguruan dioxinaren ez direla biderkatzen ondorioztatuz. OEIT-tik errausketaren inguruan dioxina mota batzuk gehiago edo gutxiago agertzea ez dela esanguratsua uste dugu.

Inportanteena da errausketaren inguruan osasun arazo larriak sortzen direla. Zehazki, heriotza tasa handiagoa da eta gaixotasun larriak areagotu egiten dira errausketaren inguruan. Ikerketa asko daude joera hau baieztatzen dutenak. Izan dioxinagatik edo zaborra erreterakoan sortzen diren beste partikula edo konposatu kimikoengatik -ezagun edo ezegunak-, errausketaren inguruan minbizia izateko arriskua areagotu egiten da. Hori da errealitatea.

Aurrekoetxea eta Ibarluzeak aipatutako ikerketetan dioxina kopurua ez dela areagotzen baieztatu arren, ikerketa horiek ezin dute ziurtatu minbizia izateko arriskurik ez dagoela. Zeren eta dioxinaren ez dela minbizia sortzen duten elementu bakarrak.

Minbizia eragin dezakete metal astunek, NO₂-k, SO₂-k, CO₂-k, [...] furanoek, zepak, errausketak... Eta Arsenikoak (Bilboko errausketari berak onartzen duen bezala, Arsenikoa kontrolik gabe pilatzen ari da errausketaren inguruko lurretan).

Gainera, Aurrekoetxeak berak onartzen du "baliozko emaitzak" ikusteko "bi edo hiru urte" itxaron behar direla, minbizia eta edozein sustantziaren arteko harremana baieztatzeko "gutxienez 10 urte" behar direlako. Hau da, Aurrekoetxeak berak onartzen du oraindik ez

dakigula errausketari ze eragina izango duen inguruan bizi diren pertsonengan.

Beste aldetik, Aurrekoetxea eta Ibarluzearen beste argudio nagusia da "errausketa ez dela izango Gipuzkoan gehien kutsatuko duen planta". Honen aurrean, jendea lasaitu baino ikaratu egiten dela uste dugu. Izan ere, Ingurumenaren kutsadura XXI. Mendeko arazorik larrienetariko da. Eta Ibarluzeak eta Aurrekoetxeak esaten ez dutena da toxikoak bio-metagarriak direla, hau da, zenbat eta esposizio handiagoa, hiltzeko eta gaixotzeko arriskua are eta handiagoa. Bada, Gipuzkoan dagoeneko dagoen kutsadurari zergatik gehitu beste toxiko-iturri erraldoi bat? Toxiko-iturriak gutxitzea eta ez gehitzea izan beharko litzateke erakundearen joera. Europako Parlamentua norabide horretan ari da aurrera urratsak ematen eta, horregatik, 2020rako birziklatu eta berrerabili daitekeena ez errausketa jarrera hartu da.

Errausketari eta minbizia lotzen duten ikerketen artean, bakarrik Carlos III Osasun Institutuak 2012an argiratuak ikerketa aipatu zuten. Ikerketa honi garrantzia kendu nahi izan zioten, errausketari "zaharrei" buruzko dela esanez. Baina orduan, zergatik ez dute aipatzen errausketari "modernoek" inguruan egindako beste ikerketarik? Nazioartean egindako hainbat azterketetatik eratorritako ebidentzia zientifikoek errauskailuek osasunaren duten eragina zein den oso argi uzten dute. Besteak beste: Heriotza tasa orokorra %13 hazi daiteke errauskailu batetik gertu bizi diren guneetan, minbizia kasuek %3,5 egiten dute gora, Gibeletako minbizia kasuek %29 hazi dira eta biriketakoak %14, eta bar luze bat. Ez dugu guk esaten, Ashworth, Elliott, Porta, [...] eta beste askok esaten dute.

Era berean, Carlos III.arena behaketazko metodologiaren bidez egindakoa dela kritikatu dute. Ez dute esaten, aldiz, horrela egin behar dela ezinbestean. Ez

litzateke etikoa izango pertsonak toxikoen isurketaren eraginpean nahita jartzea, ea iturri horrek ze ondorioak dituen ikusteko. Horregatik, Ingurumeneko epidemiologiaren baitan, ikerketa ekologikoak erabiltzen dira (Walter, 1991).

Beste aldetik, Aurrekoetxea eta Ibarluzeak dikotomia faltsu bat planteatzen saiatu ziren: ea errausketari ala zabortegeak nahi ditugun erabaki behar dugula. Baina hori ez da zuzena, errausketari ere bere zabortege propioak behar dituztelako, bata zepentzat eta beste bat errausketari. Errausketa oso toxikoak dira eta gordetzeko segurtasunzabortegeak behar dituzte. Zepak hondakinak erre eta gero sortzen diren hondakinak dira eta, zabortege kontrolatu batean bota baino lehenago, tratatuak izan behar dute.

Errausketari sartzeko den Tona bakoitzeko laurden bat zabortegean isuriko da. Eta honi errausketari tximinietatik botatzen dutena gehitu behar zaio. Adibidez, Zabalgarbik 2014an 235.000T CO₂ isuri zituen.

Azkenik, bi ikerlariak azpimarratu zuten ez dagoela giza jarduerarik "arisku 0" duenik. Ados gaude, hori horrela da. Baina ziur gaude hau izan zela Ibarluzeak eta Aurrekoetxeak erabili zuten bidea onartzeko errausketari modernoek ere sortzen dituzten keak, errausketari eta zepak oso arriskutsuak direla.

Hauk horrela, OEIT-tik behin eta berriz adierazten ari gara zuzentze-printzipioa ezarri behar dela. Are gehiago kontuan hartzen badugu Zubieta inguruan 270.000 lagun bizi direla, batez ere Donostian. Eztabaida sustatu behar da eta denon artean erabaki dauden aukeren artean. Eta alternatiba osasungarriagoak egon badaude. Bitartean, zuzentze-printzipioa aplikatu dezagun.

Hipodromoaren 100 urteak

Aterpeak Udalarekin lehiaketa abiatu du

Herritarrek asmatu beharko dute herriko zein denda edota tabernetan dauden jarrita jockey 4 joka. Asmatzen dutenen artean hainbat sari zozketatuko dira.

Aterpea eta Udal ordezkariak Hipodromoko kudeatzailearekin batera egin zuten lehiaketaren aurkezpena. Ramon Ormazabal Aterpeako lehendakariak Hipodromoak herrian izan duen eragina azpimarratu zuen, kirolaren, pertsonen eta ekonomia-aren bizikidetzari dagokionez. "Aterpeak ezin du ahaztu espa-

rru ekonomikoan duen garrantzia, udako kontsumoan eragiten du eta. Era berean, eragina ez da uda garaira mugatzen, urte osoan zehar mugitzen da jende ugari hipikaren inguruan, eta horietako asko herrian bizi dira".

Ormazabalek azaldu zituen lehiaketaren nondik-norakoak. Honetan parte hartu nahi dute-

nek txartel bat jaso behar dute. Bertan ageri dira bilatu beharreko jakatxoak, eta parte hartzen duten denda, kafetegi eta tabernen zerrenda. Jakatxoak dauden lekuen izenak bete eta Ormazabal Loradendan entregatu beharko da txartela, uztailaren 11tik 23ra.

Uztailaren 30ean, 13:30ean, Lasarte Tabernan egingo da zozketa zuzen betetako txartelen artean. Sariak honakoak izango dira: 2 laguntzako afaria Martin Berasategin; 2 laguntzako 2



Asteazkenean aurkeztu zen ekimena Hipodromoan. UDALA

afari Viña del Mar-en; 5 bono Café-Bar Buenetxean 4 pintxo dastatzeko; 2 laguntzako afaria Araeta Sagardotegian; 2 laguntzako 2 afari Arkupe Tabernan eta sarrera bikoitza Donostiako Urrezko Koparako. Txartelak entregatzen dituzten lehen 100 pertsonak, gainera, sarrera individual bat

jasoko dute Hipodromoko denboraldiko edozein lasterketara joateko, kanpo geratuko da Urrezko Kopa.

Peio Urtaşun Hipodromoko kudeatzaileak, "hipodromoak pasa dituen urte txarrak" aipatuta, eskerrak eman zizkien lasarteitarrei beti ondoan izan direlako.



CIFP USURBIL LHII

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

www.lhusurbil.eus
943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 11tik 15era (biak barne)



**Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak**



LASARTE - ORIA 1916 - 2016

100 URTE LASARTEKO HIPODROMOAREKIN

SARIAK

- BI LAGUNTZAKO AFARIA MARTIN BERASATEGI JATETXEAN
- BI LAGUNTZAKO BI AFARI VIÑA DEL MAR KAFETEGIAN
- BI LAGUNTZAKO BI AFARI LASARTE TABERNAN
- PINTXOAK EDARIAREKIN DASTATU AHAL IZATEKO 5 BALE (4 PINTXO BALE BAKOITZEKO) BUENETXEA TABERNAN
- BI LAGUNTZAKO AFARIA, "ASTEBURUKO MENUA", ARAETA SAGARDOTEGIAN
- ZALDI-LASTERKETEN GARAIAN, BI LAGUNTZAKO BI AFARI ARKUPE TABERNAN
- BI TXULETA OKELA HARATEGIAN
- DONOSTIAKO URREZKO KOPARAKO SARRERA BIKOITZA



**LASARTE-ORIAKO KOMERTZIOETARA
HURBILDU ETA LOKALIZA EZAZU
ZEIN ESTABLEZIMENDUTAN DAGOEN
JAKA MOTZ BAKOITZA**